

## Zer da pandemia garai hauetan haurdun egotea?

Haurrak, jaio aurretik ere, hemen daude gurekin batera, kanpora atera aurretik umetokiaren goxotasunean. Eta momentu horretatik bertatik, pandemia garai hauetan eskubide urraketak jasan dituzte euren familiekin batera.

Haurdunaldiaren prozesua kasu askotan, ez da emakumeak bizitzen duen prozesua soilik, familiaren prozesua baizik. Beraz, familia osoak izan beharko luke eskubidea prozesu honetan parte hartzeko, hasieratik bukaeraraino.

Haurdunaldia epe benetan berezia da, guztiz emozionala, ondo joan daitekeena edo zoritxarrez arazoak izan ditzazkeena, baina gertatzen dena gertatzen dela, amak sostengu emozionala guztiz beharrezkoa dauka. Ebidentzia honen aurrean, ez da inondik inora bidezkoa amari, berak aukeratutako pertsona bere ondoan izateko eskubidea ukatzea eta gainera ardura hori osasun langileek hartu behar izatea horrek suposatzen duen guztiarekin.

Zorionez pandemiaren hasieran hartu izan ziren neurri bortitz batzuk, eta herrialde edo ospitale batzuetan oraindik egiten direnak (bakarrik erditu, umea eta ama banandu ama Covid positibo bada...) orokorrean ez dira egiten ari gure inguruko ospitaleetan. Baina zer deritzozue honako neurriei buruz?

- Kontsulta guztietara (emergentziak ez badira) **haurduna bakarrik** sartu behar du, baita ekografiatara ere.  
**Beharrezko neurriak hartuta, zergatik ezin du horrelako momentu batean aitak, beste amak edo amak aukeratutako pertsona batek bere umearen prozesua gertutik jarraitu eta parte hartu? Zergatik ezin du haurduna emozionalki lagundu?**  
Klinika pribatu askotan ahalbidetzen da.
- **Erditze aurreko taldeak** leku gehienetan **bertan behera** geratu dira edo eta leku batzuetan online bidez egiten ari dira.  
**Ezin dira talde murriztuak antolatu beharrezko neurriak hartuta gutxienez lehenengo aldiz guraso izango diren horientzat aukera ziurtatuz?**  
Zentro pribatu batzuetan antolatzen ari dira.
- Haurdunak erditzea ospitalean egitea erabakitzen badu, **maskara jantzita eraman behar du erditze prozesu osoan** zehar.  
**Nola da posible fisikoki, emozionalki zein mentalki horren garrantzitsua den bizitzako momentu horretan emakumeari maskara gabe erditzeko aukera ez ematea? Nola da posible arnasketak izugarritzko garrantzia duen prozesu natural batean? Ez litzateke nahikoa izango laguntzen duten profesionalek FPP2 edo FPP3 maskara eramango balute?**
- Erditze ostean, hainbat eta hainbat emakumerentzat, eta ondorioz euren jaioberrientzat, hain lagungarriak izan diren osasun zentroetako **edoskitze taldeak bertan behera** geratu ziren eta ez dira martxan jarri berriro.  
**Ezin dira, osasun zentroetan ez bada ere, udaletxeetan horrelako taldeak antolatu? Aforoa murriztuta bada ere eta beharrezko neurriak hartuta? Behin eta berriz frogatu dira edoskitzearen onurak haurra zein emakumearen ongizate fisiko eta emozionalean, baina edoskitzea finkatzen laguntzeko emakumeok behar dugun sostengu sarea ezinbestekoa da horretarako.**

Hauek dira nire burura etorri diren eskubide urraketa nabarmenenak, NEURRI HAUEK ZE NEURRITARAINO BABESTEN DUTE GIZARTEA? ETA ZE KALTE EGITEN DIE HAUR ETA HAURDUNEI? Berriz ere, proportzionaltasunik gabeko neurriak ezarri direla sentitzen dut, eta berriz ere talde zaugarrienen aurka egiten duten bitartean, osasunaren izenean ari direla entzun behar...

*Pandemia garaiko emakume haurdun bat.*



# HAURDUNALDIA ETA ERDITZEA COVID-19ren GARAIAN

## Non daude emakume eta haurren eskubideak?

*HAURRAK ERE BAI*